

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
110	20	183	33
positibo berri	hildako	positibo berri	hildako
563	166	1197	506
positibo guztira	ospitalizatuta	positibo guztira	ospitalizatuta
Hernanin 15 (berriak 2) Astigarragan 4 (berria 1)			

«Herritarrei esan nahi diegu ez saiatzeko tranparik egiten, beraien kontra dijoalako»



«Etengabe» ari dira herrian bueltaka, Astigarragako udaltzainak, «ziurtatzeko jendea ez dabilela kalean arrazoirik gabe».

Astigarragako udaltzain buruak, Agustin Semperenak, onartu du gehienak zintzo ari direla neurriak errespetatzen, baina badirela tranpa egin nahi dutenak ere: «txakurrekin ari gara okerren; paseatzera ateratzen da jendea».

ASTIGARRAGA UDALTZAINGOA

Ez dira egunik errazena izaten ari, osasun alarma egoera ezarri zenetik, udaltzaintzat ere. Izan ere, konfinamendu agindua gehienek zintzo betetzen duten arren, badira errespetatzen ez dutenak, eta horrek tentsio momentuak sortzen ditu.

Hala onartu du Agustin Semperenak, Astigarragako udaltzain buruak: «aurreneko egunetan, batez ere aritu ginen jendea erakusten, zer egin zezakeen eta zer ez. Baina dagoeneko jarri behar izan ditugu salaketa batzuk, badirelako batzuk ez dituztenak errespetatzen hartu diren neurriak. Beti dago tranpa egin nahi duen jendea. Tentsio pixka bat sortzen du horrek».

Dena den, uste du gehiengo zintzo ari dela kasu egiten. Hori

zaintzeko, etengabe ari dira herrian bueltaka, «ziurtatzeko jendea ez dabilela kalean arrazoirik gabe. Ezin gara aritu denek aldeak, nora dijoazen edo zertan ari diren; baina gaizki ari direla ikusten dugun horiei, atentzioa ematen diegu. Esate baterako, ikusten baditugu bi lagun elkarrekin paseatzen, egon behar ez duten toki batean. Baina kalearen erditik oinez dijoana, suposatzen dugu ondo dijoala, erosketak egitera edo lanera, ez bada bueltaka dabilela», dio.

«Txakurra ateratzeara da, une honetan, jendea okerren egiten ari dena»

Zentzu horretan, mezua helarazi die herritarrei: «esan nahi diegu, ez saiatzeko tranparik egiten, beraien kontra dijoalako hori. Jende asko dago txakurra-

rekin ateratzen dena paseatzera. Txakurra ateratzeko baimena, ez da goiz osoan harekin kalean ibiltzeko edo paseo luzeak egiteko. Egin behar da atera etxe ondora, ahalik eta denbora gutxien egon, eta berriro etxera. Eta ez beste txakurrekin edota pertsonekin kontaktuan egon. Hori da, une honetan, jendea okerren egiten ari dena».

Osasun alarma egoera ezarri zenean, astero egin ohi duten bezala, bilera egin zuten Hernaniko ertzainguekin, inguruko herrietako udaltzain buruekin. Eta bertan hitz egin zuten, jarraitu beharreko pausoen inguruan: «instrukzio berak daukagu denok, baina funtsean, eskatu zaiguna da zentzu jokatzeara», azaldu du Semperenak.

Ertzaintzarekin harremanetan daude uneoro, edozein zalantza dela ere; eta inguruko udaltzainekin, egunero parte elkarbanatzen dute, eguna nola joan den aditzera emateko. Gainerakoan, normaltasunez ari dira lanean, osasun zerbitzuek gomendatutako neurriak hartuta. K

«Protektzio Zibiletik esan digute, gure laguntza beharko dutela»

Egun lasaiak ari dira izaten suhiltzaile boluntarioentzat, baina momenturen batean, beraien beharra izango dutela esan diete.

GOIZUETA SUHILTZAILEAK

Garai aldrebesa izanagatik ere, egun lasaiak ari dira izaten hauek, Goizuetako suhiltzaile boluntarioentzat: «irteerarik ez zaigu tokatu deustara, martxoaren hasieratik. Beste parke batzuetakoak bai, lan asko ari dira izaten suteekin; baina guk, zorionez, ez dugu atera beharrik izan, eta ezta anbulantzia transladorik egin ere», azaldu du Fernando Goyak, Goizuetako suhiltzaile parkeko arduradunak.



Fernando Goya, Goizuetako suhiltzaile parkeko arduraduna.

Argitu du, hala ere, Koronabirus kasurik izanda, bertako anbulantziak ezin lukeela traslado hori egin: «COVID-19 birusaren sintomak ematekotan, medikuak baloratuko luke aurrena, eta horren arabera, behar izanez gero, eskatuko luke anbulantzia berezi bat, neurri bereziak behar direlako. Eta guk ere, norbaitek hanka hautsi duelako traslado bat egin beharko bagenu, neurriak hartu beharko genituzke; betaurreko aislanteak, guanteak, maskarilla...».

Suterik gertatuz gero, berdintsu: «beti joaten gara babestuta, maskarilla bereziekin, betaurrekoekin eta guanteekin, suteetara, ketik babesteko; eta horiek, funtzioa beteko lukete kasu honetan ere. Baina parketik dagoeneko

babes guztiekin atera beharko genuke. Eta normalean jartzen ditugun guanteen azpitik, late-xekoak ere jantzi». Desinfekzio lanak, berriz, eginda daukate suhiltzaileen kamioiek eta anbulantziak: «irteera edo trasladoren bat den aldiro egiten zaie desinfekzioa».

Oraingoan, beraien egitekoa ohikoa izaten ari dela azaldu du Goyak, baina adi egoteko abisua eman diete: «hau guztia hasi zenean, aurreko astean, Protektzio Zibiletik deitu ziguten, suhiltzaile boluntarioen parke guztietakoei, esateko gure laguntza beharko dutela; ez dakitela zein momentutan eta zertarako, baina gure beharra izango dutela seguruenik, eta gurekin kontaktu nahiko luketela. Jakinaren gainean jarri gaituzte».



Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jalegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jalegunetan: 7:00-14:00

Ogi egin berria
beti zure eskura



PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

KRONIKAK PUBLIZISTA BEHAR DU ORDEZKAPEN BATERAKO

Bidali zure CV-a, **apirilaren 14ra** arte:
kronika@kronika.eus

Dobera Euskara Elkarte
Larramendi 11 behe
20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- / Euskara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.
- / Lantaldean aritzeko gaitasuna.
- / Iniziatiba eta enpatia.
- / Publizitate edo marketing ikasketak izatea.

ESKAINIKO ZAIRO:

- / Kontratua: sei hilabetetarako.
- / Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

BALORATUKO DA:

- / Urumea bailara ezagutzea.
- / Doberako bazkide izatea.
- / Tokiko hedabideak ezagutzea.
- / Publizista lanetan esperientzia.
- / Maketatze eta diseinu programen ezagutza.
- / Sare sozialak menperatzea.

Baldintzak betetzen dituzien artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

GAUR Iparraldeko haizea zakartu egingo da, euria egingo du eta tenperatura nabarmen jaitsiko da. Euria, batik bat, egunaren lehen partean egingo du. **Min.6° / Max.11°**

BIHAR Giro eguzkitsua eta egunsentiko hotza izango dira hizpide. Zerua garbi egingo da ordu askotan. **Min.2° / Max.14°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Ertzaintza

Azko Urtola

GOZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla Urbietak, 7** (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

EUSKO JASOTAKO GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Emakumeon plazako lanen plangintza moldatuko da

Asteartean hasi ziren eta Tomas Alba kaletik Errekatxo kalerako sarbidea moztuta egongo da lanak luzatzen diren bitartean.

ASTIGARRAGA UDALA

Kaletik ibilgailu eta pertsona gutxi dabilela aprobetxatuz, eta oraindik ere eraikuntzako enpresek lanean jarrai dezaketela ikusita, Emakumeon plazako urbanizazio obrarik gatazkatsuen gauzatzea erabaki du Astigarragako Udalak. Hau da,

Tomas Alba 13 etxea inguratzen duen guneko obraren fasea.

Asteartean hasi ziren eta hori dela eta, Tomas Alba kaletik Errekatxo kalerako sarbidea moztuta egongo da lanak luzatzen diren bitartean. Ondorioz, Errekatxo kalera ibilgailuz sarbidea Lanberri kaletik egin beharko da. **K**



Errekatxo kalerako lanak.

Gaixoek sortzen dituzten hondakinak errefusaren ontzian utzi behar dira

Koronabirusa dela eta, etxeetako hondakinak kudeatzeko zenbait jarraibide jaso ditu Udalak.

ASTIGARRAGA UDALA

Koronabirusa dela eta, etxeetako hondakinak kudeatzeko, Osasun Ministeritzaren gomendioei jarraituz, eta baita San Marko mankomunitateak hartutako neurri dagokionez, zenbait jarraibide jaso ditu Astigarragako Udalak.

Gaixorik dauden pertsonen hondakinak, Osasun Ministeri-

tzak ohartarazi duenez, gaixoen hondakinen poltsak errefusaren edukiontzian baino ezingo dira utzi, eta «erabat debekata dago» gaikako bilketarako edukiontzietan uztea, baita edukiontzien inguruan ere. Hori dela eta, alarma egoerak irauten duen bitartean errefusaren edukiontzia egunero egongo dira irekita gaixorik dauden pertsonen zerbitzura.

Garbiguneak

Garbera, Hernani, Usurbil, Oiarzun eta Atotxa-Errekako garbiguneak itxita egongo dira, herritarrei bideratutako zerbitzua eskaintzen duten heinean.

Furgoneta ibiltaria

Etxeko hondakin arriskutsuak biltzen dituen furgonetaren zerbitzua bertan behera geratu da.

Zabortegeiak

Erabiltzaileentzat soilik daude zabalik. Herritarrentzat ez. **K**

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

M26ko ikasle greba

Ohar honen bitartez adierazi nahi duguna da, gaur egun aurkitzen garen egoera dela eta, martxoaren 26rako Hego Euskal Herriko bigarren hezkuntza eta lanbide heziketako zentroetan eta unibertsitateetan deitu genuen ikasle greba bertan behera uztea erabaki genuela: COVID-19 dela eta aplikatu diren neurriak direla medio, greba behar den bezala egiteko inolako baldintzarik ez zegoelako. Beraz, martxoaren 26ko ikasle greba deialdia bertan behera uztera behartuta aurkitu ginen.

Hala ere, hau ez da hemen amaitzen, nahiz eta gure jardun politikoa aurrera eramateko zailtasunak eduki, militante sozialiston egin beharra da egun aurkitzen garen egoeraren au-

rrean arduraz jokatzera eta momentuak eskatzen duen heldutasunez erantzutea.

COVID-19 dela eta, krisi egoera larria eta ezohikoa bizi dugu. Birusaren hedapenak mundu mailako osasun larrialdi egoera sortu du, milaka hildako eta kutsatu utziz herrialde askotan. Garrantzitsua da egoera honetan mediku eta osasun adituen irizpide eta gomendioak kontuan hartzea eta hartzen diren neurri guzti hauei erantzutea.

Dena den, egoeraren larritasuna ez da horretara mugatzen. Honekin batera goi burgesiaren ofentsiba politikoa etorri da. Alarma egoeraren atzean, salbuespen egoera ezkututzen da eta banketxe eta enpresari handiak dira salbuespen egoera hori

arautzen ari direnak.

Honi erantzuten dio, osasun adituen gomendioei muzin eginenez langile asko behartuak egoera lanera joatea produkzioa gera ez dadin, nahiz eta haien buruak arriskuan jarri joaten diren bakoitzean, hau eman daitezkeen askotariko adibide bat besterik ez da.

Burgesiak beraien interesak langileriaren bizitzan aurretik jartzen duela beste behin argi geratu da eta honen aurrean langileriaren antolakuntza da aurre egiteko bide bakarra.

BURGESIAREN OFENTSIBA GELDITU.

Anartz Elozegi Mujika
Ikasle Abertzaleak

Naturkonek azokak egitea eskatu du

Aurreko astean ez zen Hernanin azoka egin, baina talde naturalistak egiteko baimena eskatu du, eta gaur bai, jarriko dute.

HERNANI AZOKA

Koronabirusaren krisi larriaren aurrean, neurri zorrotzak hartu dituzte hainbat administrazioek, esparru ugarian. Eta azoketara ere iritsi dira, udal dezentek aurreko astean beren herrietako azokak bertan behera utzi zituzten. Horien artean zegoen Hernanikoa, baina gaur ordea posturen bat jarriko da Urbietakalean.

Naturkon-Naturaren Kontserbazioaren aldeko Gipuzkoako taldeak *Azoka bai!* lelopean baimenak ematea eskatu du. «Udal batzuek, segurtasun-neurri zorrotzak ezarrita, azokak bestela egiteko aukera eman dute: Arrasate, Azpeitia, Oñati, Ordizia... Krisi hau lezio ugari ematen ari zaigu: osasun eta zaintza sistema publiko indartsuen beharra dugula ez ezik,

globalizazioak ekarritako merkataritzak eta ekoizpena kilometroetara eramateak ondorio lazarriak dituela ere bai, larrialdi egoera honen kasuan bezala. Eta orain ere bizitzeko elikagaiak behar ditugunez, ondoko baserriarrek eskaintzen dituztenak herritarren eskutara iristea aldarrikatzen dugu, haien beharra izango baitugu orain eta etorkizunean, eta aste batzuetako geldialdia, baserriar askori ekoizpena galtzea ekarriko baitio».

Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Osasun Sailari eta udalei eskatzen diete, behar diren neurriak hartuta, aukera eman dezatela herritarrei azokan bidez, zuzenean baserriarrei bertako fruitu, barazki eta bestelako jakiak erosteko. «Bertatik bertara, garaiko, bertako eta elikagai ekologikoen alde! Trantsizio ekologikoaren bidean eta Klima Aldaketaren larrialdia murrizteko, ekoizte- eta merkaturatze-zirkuitu laburrak behar ditugu, horien artean azokak, ahalik eta seguruenak, osasunari dagokionez zein ingurumenari dagokionez». **K**

Indarkeria matxistaren aurka, deitu

HERNANI UDALA

24 orduko isolamenduak etxeko tentsio giroa areagotu dezake, indarkeria egoerak larriagotuz. Udalak arreta telefono batzuk jarri ditu eskura biktimentzako «Konfinamenduan indarkeria jasaten ari bazara eta zure erasotzailearekin aislatua bazaude, deitu»: 943 55 78 54 (Hernaniko Zerbitzu Sozialak, 08:00-14:00 bitartean); 900 840 111 (Eusko Jaurlaritza, 24 orduko telefonoko arreta zerbitzua; telefono anonimoa da, eta ez du fakturan arrastorik uzten); Udaltzaingoa (092), Larrialdiak (112) eta Ertzaintza (943 53 88 40).

Noka aditz taula betetzen lagundu nahi?

URUMEA BERTSOLARITZA

Noka aditz taula proiektuari bultzada eman nahi diote, horretarako isolamendua momentu ona izan baitaiteke denbora dagoela aprobetxatuta. Nahi duenak, taula betetzen parte hartu dezake, inongo konpromezurik gabe: nokaurumeabailaran@gmail.com helbidera idatzi dezake, proiektuan parte hartzeko.

Biharko olio banaketa atzeratu egin da

URUMEA ERRIGORA

COVID-19agatik biharko olioaren banaketa atzeratu egingo da. Baldintzak aldatzen direnean jakinaraziko da banaketa data berria.

IRAGARKI MERKEAK

ONDDI AKADEMIAN streaming bidezko klaseak eskaintzen ditugu DBH eta Batxilergoan.

Info gehiago: **688719571** edo onddiakademia@gmail.com

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**